

EBAZPENA, 2016ko azaroaren 28koa, Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren zuzendariarena; Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari buruzko ekainaren 28ko 13/2012 Legeari jarraikiz Unibasqen Gobernu Kontseiluaren iritzia entzunda Aholku Batzordearen kideak izendatzea xedatzen duena.

Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari buruzko ekainaren 28ko 13/2012 Legearen 8.3.d) artikuluan xedatutakoaren arabera, Agentziaren Zuzendariari dagokio Aholku Batzordearen kideak izendatzea eta kargutik kentzea, Gobernu Kontseiluaren iritzia entzunda.

Horregatik, esleitu zaizkidan eskumenei jarraiki, eta aipatutako aurreikuspenak betetzeko,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Unibasqen Aholku Batzordea entzunda, Ebaluazio Batzordeen hurrengo kideak kargutik kentzea:

1. Zientzia Juridikoen eta Ekonomia Zientzien Batzordea

Idazkaria: Silvia Barona Villar

2. Gizarte Zientzien Batzordea

Bokal: Juan Manuel Escudero Muñoz

3. Giza Zientzien Batzordea

Bokal: Pilar Roig Picazo.

Bigarrena.– Unibasqen Aholku Batzordea entzunda, Ebaluazio Batzordeen hurrengo kideak izendatzea:

1. Zientzia Juridikoen eta Ekonomia Zientzien Batzordea

Bokal: María Victoria Petit Lavall

Idazkaria: Fernando de la Hucha Celador

2. Giza Zientzien Batzordea

Bokal: Alexander Nogué Font.

Hirugarrena.– Ebazpen honek egun honetatik bertatik aurrera izango ditu ondorioak. Hala badagokio, ebazpena ezagutzera emate aldera Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren web orrian argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko azaroaren 28an.

A handwritten signature in blue ink, appearing to be "Eva Ferreira". The signature is stylized and somewhat abstract, with several overlapping loops and lines.

EVA FERREIRA
Unibasqeko Zuzendaria